

JARUKETA IZENA C5 Leitzarain ibaiaren ibilgua lehengoratzea

Zer KBETan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Leitzarain ibaia

LOTURA NATURA 2000ekin

Leitzarain ibaiaren ibilgua lehengoratzea Natura 2000ko plangintza-helburu hauen baitan dago:

5. helburu operatiboa: "Ibai Korridore Ekologikoa" kudeaketarako funtsezko elementuaren "Oihan ustiapenak ibai-habitategian eragiten dituen kalteak saihestea", zuhaitzak ibaira berez erortzeko prozesua eta bertan gelditzea murriztu izanak eraginda, eta iraganeko oihan espezie aloktonoak sartu izanaren ondorioz.

- "*Parachondrostoma miegii* eta Komunitate iktikoa oro har" kudeaketarako funtsezko elementuaren 2. helburu operatiboa: "KBEan dauden arrain espezieen gaineko eraginak ezabatzea", Ibai Korridore Ekologikoaren jarduketari lotzen zaiena.

Era berean, izokin arruntarentzako (*Salmo salar*) habitat eskuragarria hobetuko da, eta lotuko zaio Leitzarain ibaiak hura izateko gaitasun potentzialari.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen:

- Zuzenean funtsezko elementuontzat da onuragarria: "91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak", "Ibai Korridore Ekologikoa", "bisoi europarra (*Mustela lutreola*)" eta "*Parachondrostoma miegii* eta komunitate iktikoa oro har".
- Halaber onuragarria izan daiteke Batasunaren intereseko izokin arrunta espeziarentzat (*Salmo salar*) eta muturluze piriniotarrarentzat (*Galemys pyrenaicus*).

JARUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Leitzarain ibaia. Elduingo eta Berastegiko udalerriak.

Data

2016ko uda

Aurrekontua

149.250 €

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Ekintza honen xedea da Leitzarain ibaiaren ibilgua lehengoratzea, zurezko egiturak erabiliz, haren kontserbazio-egoera hobetzeko, espezie mehatxatuen populazioak handitzeko, zerbitzu ekosistemikoak sendotzeko, eta gerta daitezkeen higadura-arriskuak murrizteko.

Hona bigarren mailako helburuak:

- Espezie aloktono inbaditzaile gutxiago izatea Leitzarain Ibaia KBEan; maiz, KBE horretara joko da gauzapean-materialak eskuratzeko.
- Lehengoratze ahaleginaren (tarte lehengoratuaren luzera) eta lortutako ingurumen onuren arteko erlazioen gaineko ezagutza handitzea.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Bazkideek antzeko esperientziak garatu dituzte beste esparru batzuetan. Antzekoena GURATRANS proiektuaren baitan egin da (POCTEFA programa, EGEF funtsekin batera finantzatua).

Hala esperientzia horretan nola aurrekoetan, oinarriko ideia izan zen ustez amurrainaren aldekoak eta beste arrain batzuen aldekoak ziren ibai-tarteetan

www.irekibai.eu

jardutea; baina zehazki amuarrain populazioek arazoak zituztela atzemandako ibai-tarteetan.

Behin alde batera utzita kutsadura eta ibaian dauden beste aldaketa batzuk, horren agerikoak ez diren beste efektu batzuk baloratu ziren, hala nola gero eta zuhaitz gutxiago dagoela ibaian erorita, eta gainera, hartan denbora gutxiagoz irauten dutela, zuhaitzak kendu ohi baitira arriskurik ez izateko; adibidez, zubi-begiak ez trabatzeko.

Dena dela, prozesu garrantzitsua da fauna urtarrarentzat. Izan ere, zuhaitza ibai barrura erortzen denean, eremu txiki ezberdinak sortzen ditu (mikrohabitatak), eta arrainak eremu horiez baliatzen dira hainbat funtzio egiteko: ugaltzeko, janaria bilatzeko, harrapariengandik ezkutatzeko, etab. Horregatik erabaki zen zuhaitzak ibaira erortzearen berezko prozesua imitatzea, baina aldi berean segurtasuna bermatuta. Horretarako, arrisku eremuetan zuhaitzak ainguratu ziren.

Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA

Aurretiazko esperientzia horien lehen emaitzak onak izan dira; beraz, orain hori bera egitea proposatu da Leitzarain ibaiko 7,5 km-ko tarte batean, Oiokitik hurbil.

Eremu hori aukeratu da, jada azaldutako ideia nagusiari jarraiki: ez du ageriko arazorik, zuhaitz gutxi dago ibaian erorita, eta erorita daudenek gutxi dira. Bestalde, amuarrain populazioak gainbehera datozelako zantzuak badira edo egoera txarra dutelako zantzuak.

Ibilguaren habitata hobetuko da, enborrak sartuz, ibaietan berez osatzen diren egiturak balira bezala (deflektoreak, enbor bakartuak, metaketak). Enborrak kableen bidez ainguratuko dira, egonkorragoak egoteko.

Era berean, zurezko metaketa batzuk ibaiaren ondoan utziko dira, bisoi europarrak babesleku gehiago izan ditzan, eta ibaiertzeko higadura arriskuak murrizteko.

Behar diren enborrak eskuratze aldera, inguruan atzeman diren zuhaitz aloktonoak moztuko dira. Espezie horiek beste herrialde batzuetakoak dira berez eta ingurumen arloko arazoak sortzen dituzte, espezie autoktonoak ordeztzen baitituzte, eta batzuetan neurrigabe ugartu, eta ekosistemak eraldatzen dituzte.

Jarduketa hainbat tartetarako proposatu da, eta tarteek gero eta luzera handiagoa dute (200, 360, 660 eta 1.200 m, hurrenez hurren). Ondoren, aztertuko da zer onura dauden fauna urtarrarentzat tarte bakoitzean. Diseinu horren bidez saiaturako gara jakiten zein den tarte lehengoratuaren luzera minimoa ingurumen arloko onurarik handienak lortzeko. Ibaietako lehengoratze lanen kostua/onura oreka optimizatzea.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Aurreikusia dago 25 m³-ko dentsitatea lortzea zurezko egituretan ibaiko hektarea bakoitzeko, betiere esku hartutako tartetean, eta espezie exotiko inbaditzaileak erabiliko dira. Horrela, ibilguaren baldintzak nabarmen hobetzea espero da salmonidoentzat. Azken hori baloratze aldera, amuarrain arrunta baliatuko da espezie adierazle gisa.

